

INFORMAZIO GEHIAGO:

Helburua enpresekin lankidetzan aritzeko **berrikuntza aplikatuko proiektuak** garatzea da, irakasleek eguneratze zientifiko-teknologikorako dituzten premiei erantzuteko, betiere berrikuntza sustatuta bai enpresa txiki eta ertainetan, bai LHko ikastetxeetan.

Enpresa bat daukazu eta **berrikuntza aplikatuko proiektu** batean kolaboratu nahi duzu?

Ezagutu azken urteotan egin ditugun **proiektuak**.



[www.tkgune.eu](http://www.tkgune.eu)



## BERRIKUNTZA APLIKATUKO PROIEKTUAK ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAT

### 40 ikastetxe baino gehiago gara Euskadi osoan.



**Tknika** Euskadiko Lirren Ikerketa Aplikatuko Zentroa  
Centro de Investigación Aplicada de FP Euskadi  
Basque VET Applied Research Centre

**Fp**  
EUSKADI  
LIRREN IKERKETA APLIKATUKO ZENTROA

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA NEKETA LANTZARITZA ENPLAZAMENDUEN ERAGILEAK  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, EMPLEO Y FORMACIÓN PROFESIONAL

TKgune Lanbide Heziketako zentroek osatutako sarea da, **ikastetxeen eta enpresen arteko ezagutzaren bi norabideko transferentzia errazteko.**

### Arlo teknologikoak:



MUGIKORTASUNA



ENERGIA ETA INGURUMENA



DIGITALIZAZIOA ETA KONEKTIBITATEA



INDUSTRIA 4.0  
ETA INDUTRIA  
AURRERATUA



BIOTEKNOLOGIA  
ETA OSASUNA



E-COMMERCE,  
HOSTALARITZA  
ETA TURISMOA

## Enpresarako balio erantsia


Gaur egungo testuinguru ekonomikoan, berrikuntza sustatzea enpresen lehiakortasuna bermatzeko giltzarria da. TKgunek, bere eskaintza espezializatuaren bidez, produktu eta prozesuak hobetzen eta horiei balioa erantsiz merkatu berrietara sartzea ahalbidetuko dizu.

Horretarako, Lanbide Heziketako ikastetxeetan ditugun ekipamendu eta instalazio aurreratuak enpresen eskura jartzen ditugu, arlo ezberdinetan adituak diren gure irakasleen esperientziarekin batera.

Gainera, kodigo irekian lan egiten dugunez, ez dugu inongo eragozpenik gure jakintza guztia enprekin elkarbanatzeko. Are gehiago enpresak ikastetxetik eta ikastetxeak enpresatik ikas dezala bilatzen dugu.

TKgune Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzak gidaturiko programa dela azpimarratu beharra dago, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiekin lankidetzak estua delarik. Honek, ETEen berrikuntza beharrei erantzuteko laguntza deialdien onuradun izateko aukera berriak ireki diezazkioke zure enpresari.

## Transferentzia



- ✓ **Bilakaera / Eguneratzea**  
LHko ikasleak eta irakasleak
- ✓ **Lankidetzak berritzaileak**  
Berrikuntza eta transferentzia teknologikoko sareak sortzen
- ✓ **ETEen garapen lehiakorra**  
Berrikuntza bultzatzen

## Zer eskeintzen dugu?

- 1 **Berrikuntzarako aholkularitza**  
Enpresako antolakuntzari buruzko aholkularitza eskaintzen dugu eta berrikuntza planak ezartzeko edo sormen dinamikak abiarazteko erraminta metodologikoak eskaintzen dizkizugu.  
Berrikuntzarekin loturiko diru laguntza deialdietara aurkezteko laguntza eskaintzen dugu.
- 2 **Berrikuntzarako eta hobekuntzako lankidetzak proiektu teknologikoak**  
Enprekin elkarlanean berrikuntza beharretara egokituriko berrikuntza eta hobekuntza proiektuak garatzen ditugu, horretarako ingurune estrategiko bakoitzaren indarguneak baliatuz, eta sarean lan egiteak eskaintzen duen bermearekin.

## Nola egiten dugu lan?



### TKNIKA

#### Euskadiko LHko Ikerketa Aplikaturako Zentroa

Zamalbide auzoa z/g, 20.100 Errearteria (Gipuzkoa)

(+34) 943 08 29 15

info@tknika.eus

GPS: N 43° 17' 29" W 1° 53' 58" / 74R2+M9